

Kattalin katalingorria. Piezen letrak

Kantak

Elurra teilatuan

Elurra teilatuan,
zakua lepoan,
ibili beharko dugu
aurtengo neguan.
Riau! Rakataplau!
Hau duk umorea,
utzi alde batera
euskaldun jendea!

Riau, riau! Rakataplau!
Hau duk umorea,
utzi alde batera
euskaldun jendea!

Bartolok egin omen zuen

Bartolok (eg)in omen zuen
lastozko zubia,
handikan pasatzeko
bera eta nobia,
pasatzen hasi eta
erori zubia,
Bartolok hartu omen zuen
ipurdiko handia!

Txurriana ttiki ttiki ttin,

txurriana ttiki ttin!

Txurriana ttiki ttiki ttin,

txurriana ttiki ttin!

Katarra mixe mixau

Katarra mixe mixau,

bart zer jan zenuen?

Gazta eta ogia,

niri babes eman.

Xapi, xapi, xapi, xapi!

Memoria kanta

Sugandila kanta

Sugandila kuxkur,

aita eta ama non ditun?

Errotapean.

Zertan?

Zotzak biltzen.

Zotzak zerta(ra)ko?

Sua egiteko.

Sua zerta(ra)ko?

Amona xaharra berotzeko.

Amona xaharra zerta(ra)ko?

Oiloei jana emateko.

Oiloa zerta(ra)ko?

Arrautza egiteko.

Arrautza zerta(ra)ko?

Apezari emateko.

Apeza zerta(ra)ko?

Meza emateko.

Meza zerta(ra)ko?

Gu eta mundu guztia salbatzeko!

Asmakizunak

- Zubi batean gizon buru zuri bat. Zer dela pents? (gazta)
- Kupel baten barrenean bi ardo klase eta biak bereizita... Zer da? (arrautza)
- Xurixko eta laxko, pentsatzeko gaizto. Zer da? (gatza)

Formulak

Katalingorria ikustean

Kattalingorri, ferferin gorri, zoaz zerura, eguzki xuri! Fal-fal-fal-fal-fal!

Hortza erortzean

Xagu xaharra, tori hortz xaharra eta ekarri berria!

Zotz egiteko

Bin, ban, boleran

Bin, ban, boleran,

bolerako elizan.

Han zer zebilen?

Pettiri buru gogorra.

Non da gure behorra?

Hik aizkora,
nik aizkora,
bota dezagun
gure behorra
erraz gora!

Onomatopeiak

- Behiak: marrumaka / mu
- Txerriak: kurrinka / kurrin-kurrin
- Txakurrak: saingaka / zaunka / au
- Oiloak: karaka
- Txitoak: txio
- Oilarrak: kukurruku